

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Santa María la Real elkarteak egoitzaren pisua Alokairuko Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsari (gizarteratzeko taldeak) eman dio

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak eskertu du erakundearen jokaera, eta higiezinaren giltzak jaso ditu etxebizitza berritzeko eta jada 124 etxebizitzatik gora dituen programarako erabiltzeko

Astelehena, 2019.eko otsailak 11

Santa María la Real etxeandreen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte historikoak, 50. urteurrena duela gutxi ospatu ondoren, amaiera eman dio Iruñako delegazioan egindako ibilbide zabalari, eta Estafeta kalean egoitza bezala erabiltzen zuten pisua Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsari ematea erabaki du.



Laparra lehendakariordea Santa María la Real, Gurutze Gorria eta Proyecto Hombre erakundeetako ordezkariekin bere bulegoan.

Gizarteratzeko etxebizitzaren programan, egun, titulartasun publikoko 125 etxebizitza daude, eta alokairua kudeatzeaz erakunde kolaboratzaile ezberdinak arduratzen dira, ohiko etxebizitza galdu eta babes publikoa behar dutenei etxebizitza normalizatua emanaz, gizartetik baztertzeko arriskuan aurkitzen diren pertsonak artatzen laguntzen baitute.

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak gaur goizean hartu ditu Nafarroako Jauregian duen bulegoan Santa María la Realeko hainbat ordezkari, eta orain arte etxeandreen egoitza izan den etxearen giltzak emateko entrega sinbolikoa egin dute. Elkartearen estatutuetan agertzen da, elkartearen banatuz gero, erakundearen ondarea, higiezinak nahiz likido funtsak, helburu sozialetarako emango dituztela.

Topaketan, Gurutze Gorriko eta Proyecto Hombreko ordezkariak ere hartu dute parte; hots, Santa María la Real elkartearen kontuen likidaziotik eratorritako dohaintza ekonomiko bana jaso duten erakunde ongileak. Elkarteak Caritas erakundearekin ere zati bat eman dio.

Laparrak eskerrak eman ditu elkarteak izandako jokabide eta sentsibilizazio sozialarengatik; izan ere, pisua merkatuan besterendu ordez, Nafarroako Gobernuak 2015ean Nasuvinsa etxebizitzaren sozietate publikoaren bitartez abian jarritako programarako ematea erabaki du. Horren helburua da gizartetik baztertzeko arriskuan aurkitzen diren

talde eta pertsona ezberdinei erantzuna ematea, haien gizarteratze-prozesuan, etxebizitza bat behin-behinean behar izateagatik, gizarteratzeko beste helburu batzuen artean, haien bizimodua normalizatzeko, autonomia pertsonala finkatzeko eta gizartearen barneko elkarbizitzara egokitzeko oinarritzko baliabide gisa.

Hirugarren etxebizitza bat etxerik gabeko pertsonentzat

Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsera gehituko zaion pisu (Estafeta kalean) horrez gain, Nasuvinsa sozietateak bigarren etxebizitza bat hitzartu berri du Xilema fundazioarekin, lehen esperientzian izandako emaitza onak ikusita, eta etxebizitzarik gabeko pertsonen artapen eta gizarteratzeko Housing First programarako erabiliko da.

Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsek egun 125 etxebizitza ditu –gaur emandako pisua barne-, eta horien alokairuaz Nasuvinsa sozietate publikoa arduratzen da, irabazi asmorik gabeko 14 erakunderekin - Foru Komunitatean interes sozialekoak deklaratuak-, Etxebizitzan Gizarteratzeko Taldearekin (EISOVI) eta udalerrri ezberdinetako oinarritzko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean.

Foru Gobernuaren gizarteratzeko etxebizitza-programan, Nasuvinsaren ehun etxebizitza baino gehiagoren alokairu-kudeaketan esku hartzen duten erakundeen artean, honako hauek aurkitzen dira: Gurutze Gorria, CEAR errefuxiatuentzako laguntza-batzordea, Xilema, Ilundáin, París 365 eta Santa Lucía fundazioak, ANFAS elkarteak, Aita Menni klinika psikiatrikoa, Síndrome Down eta ANASAPS, baztertzeko arriskuan aurkitzen diren emakumeak artatzeko Itxaropen Gune elkarteak, Antox desintoxikazio zentroa eta Caritas.